

M. Estonba



Txingudi.
Hendaiko padura
(Beltzenia).

duzuenez, hauetako bakoitzaren bukaeran, orain dela gutxi arte padura zoragarriak zeuden.

Gaur egun, lurralde honek izan duen industri garapen handiaren ondorioz, ibai-bailara ugarik eta ibai-bokale gehienek, giza presio handiak jasaten dituzte, Gipuzkoako padurak minimoetaraino murriztu direlarik.

Baina egoera hau azter dezagun zehazkiago.

Euskal Herriko kostaldea (II): Gipuzkoako padurak


Mikel Estonba Mintxero*

Gipuzkoako padurak

Gure irakurleek gogoratuko dutenez, aurreko hilabetean Euskal Herriko kostaldearen egoera aztertzeko artikulua sortari hasiera eman genion. Lehenengo artikulua horretan, itsas paduren deskribapen sakona egin ondoren, Lapurdiko itsasadarretan ekosistema hauek duten egoera aztertu genuen. Oraingoan, berriz, Gipuzkoako lurraldera joko dugu, bertako paduren berri izatearren.

Gipuzkoako lurraldea, Mediterraniako eta Atlantiarreko isurialdeen arteko banalerroan jaiotzen diren luzera txikiko ibai ugariz josita dago. Dagoeneko jakingo

M.K. Urdangarin



Txingudi

Izen honen bidez ezagutzen da Nafarroan jaio eta Lapurdi eta Gipuzkoaren artean bere azken kilometroak egin ondoren, Bidasoa ibaiak itsasoarekin elkartzean sortzen duen badia.

Badia honetan, orain dela hamar-kada batzuk zegoenarekin konparatzerik ez badago ere, padura-zabalera handiak mantendu dira. Dena den, esan beharra dago, giza presio ikaragarriak eta bertako hiru udalerrien (Irun, Hendaia eta Hondarribiaren) heda-

M. Estonba



Txingudi. Jaizubiako ibarra. Atzean Plaiaundi eta Bidasoako irlak.

pen handiek, padura, lotzen zailak diren lau puskatan banatu dutela (Bidasoako irla, Plaiaundi, Beltzenia eta Jaizubia), hauek ere eraso gogorak jasaten dituztelarik, hala nola dragaketak, betelanak, kanalizazioak, uraren poluzioa, isilpeko ehiza,...

Txingudik duen egoera tamalgarrria izan arren, ornitologiaren ikuspegitik, hainbat nazioarteko erakundek garrantzi handiko ingurutzat onartu dute; bere kokapen estrategikoa (Pirinioen mendebaldeko muturrean) dela eta, migrazio-garaian bereziki, ehundaka hegazti-espezieren pasagunea eta geldiuena baita.

Aipatzekoa da Gipuzkoako apolasterkariaren (*Bufo calamita*) populazio bakarra eta Euskal Herriko kostaldeko garrantzitsuena Txingudin agertzen dela. Aipamen berezia merezi du, padura honetan ikus daitekeen lore txuri deigarritzko *Cochenaria pyrenaica aestuarina* landare halofitoak ere, Euskal Herriko beste paduretan azaltzen ez delako.

Bere egoera legalari buruz, esan beharra dago azken 14 urte hauetan babes eta errekupeziarako hainbat proiektu izan

badu ere, orain arte lortu duen babes bakarra ehiza-erreserba izatea dela. Hala ere, 1991. urtean, Irun eta Hondarribiako udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako akordioaren ondorioz, aurtan

Eusko Legebiltzarrak behin-behinekonek onespina eman dio Txingudiko badiaren babes eta errekupeziarako egitamu bereziari, hezegune garrantzitsu honentzat itxaropen-leiho txiki bat ireki delarik.

Pasaiaiko senaia

Gipuzkoako ekialdetik iragaten den 19 kilometro eskaseko Oiarzun ibaiak, garrantzi handia du bere bokalean Gipuzkoako itsasportu nagusia osatzen duen Pasaiaiko senaia eratzeko. Hauxe izan da, hain zuzen ere, senaia honen inguruan zabaltzen zen padura handi eta zoragarria desagertzeko arrazoia; berak betetzen zituen lurraldeak, gaur egun Pasaia eta Errenteriako herriek eta Portuko instalazioek okupatu baitituzte.

M. Estonba



Aipatzekoa da Pasaiaiko portuko agintariek berriki kaleratutako portuaren antolamendurako egitasmoan jasotzen den kirol-kairen proiektua. Euskal Herrian planteatu diren egokienetarikoa da, ekologi garrantzi handiko ingurua suntsitu beharrean, erabat degradatutako alderdian instalatzea proposatu baitu, era berean alderdi honen itxura nabarmen hobetuko litzatekeelarik.

M. Estonba



Urumea

Jaiotzaz nafarra den Urumea ibaia, Hernanitik sartzen da Gipuzkoan eta Kontxako badia famatuaren ondoan itsasoratzen

Pasaiaiko senaia. Portu-iharduerak itsasadar honen balio ekologikoak suntsitu egin ditu.



da, bere azken kilometroak Donostiako kaleetan zehar kanalizatuta iragaten dituelarik.

Halaxe da. Azken mende honetan Gipuzkoako hiriburuak izan duen hedapen ikaragarriak, asfaltoaren azpian utzi ditu Euskal Herriko hezegunerik ederrenetarikoa. Nahikoa da antzinako grabatuei begirada bat ematea, Donostia osoa Urumea eta Ibaeta ibaien padura, hareatza eta dunen gainean eraikita dagoela frogatzeko.

Padura zoragarri honen azkeneko arrastoak, oraindik kanalizatu gabeko ibaiaren bi ertzetan mantendu diren metro karratu gutxi batzuk dira. Hala ere, berriki kaleratutako Donostiako Plan Orokorrek, azken aztarna hauek ere suntsitzea planteatzen du; ibaia Loiolaraino kanalizatzea proposatzen baitu.

Oria

Gipuzkoako ibairik luzeena den hau, Aizkorriko mendizerran jaiotzen da eta bere 65 kilometroetan probintziako eskualde industrializatuenetarikoa zeharkatzen ditu, horren ondorioz bere uren kalitatea eta bere ertzaren egoera penagarria delarik.

Donostiako padurak. Urumeako padura zabalak aztarna txiki hauetara murriztuta geratu dira. Donostiako plan orokorrak azken arrasto hauek suntsitu nahi ditu; ibaia Loiolaraino kanalizatzea proposatzen baitu.

Harrigarria bada ere, goialdean eta erdialdean erabat degradatuta agertzen zaigun ibai honek, bere azken zatian, malda leuntzarekin batera, balio natural eta paisajistiko handiko meandro zoragarriak ditu, pixka bat beherago Gipuzkoan egitura naturala ongien mantendu duen itsasadarrera irekitzen delarik.

Itsasadar honek, gainerako guztien modura kanalizazio, dragaketa eta lehorketa ugari izan badu ere, oraindik padura-barren-degi zoragarriak (Portuetxe, Oribar, Txanka behekoan,...) eta egun maren eragina galdua dutelako, hezegune ez-halafitoen ezaugarriak berreskuratu dituzten (Motondo,...) inguruak ere baditu.

Azken hauetan, hain zuzen ere, aurki dezakegu itsasadarreko herpetofauna joriaren ordezkartzarik garrantzitsuena; hezegune artifizial hauek eskaintzen zuten nitxo ekologiko ugariak narrastietan anfibio-espezie desberdinek

kolonizatu egin baitituzte. Honi, bertako baldintza klimatikoak medio narrasti eta anfibio atlantiarrek zein mediterraniarrak agertzen direla eta EAeko *Hyla meridionalis*-en populazio bakarra dagoela gehitzen badiogu, herpetofauna da, dudarik gabe, Oriako itsasadarraren berezitasuna.

Oriako itsasadarraren egoera aztertuta eta Euskal Herriko itsasadar gehieneko egoera penagarria ezagutzuz, batek baino gehiagok pentsatuko du itsasadar hau dagoeneko babestuta egongo dela. Ez, bada! Eusko Jaurlaritzako ingurugiro-sailburuordeak, Oriako hezeguneetarako babes- eta errekupezio-plan berezia prestatu arren, eta Lurralde Antolaketarako Zuzenbideak (LAZ-DOT) inguru hauek kontserbazio aktibozko figurapean babesteko asmoa badu ere, eraso eta mehatxu larriak jasaten ari da, Oriako udalaren aldetik bereziki; bere hedapen urbano eta industrialak alderdi baliotsu hauetako batzuk baitituzte helburu.

Inurritzako Erreka

Zarauzko hondartzaren ekialdean itsasoratzen den luzera txiki-ko erreka hau, oharkabean pasatuko litzateke seguraski, Euskal Herriko gainerako itsasadarren egoera primerakoa balitz. Baina gehieneko egoera tamalgarriak, erreka honek bere bokalean mantendu duen padura txiki eta duna zoragarriekin batera, ikerketa honetan kontutan hartzeko inguru bihurtu dute.

Dirudienez, MOPTMAK, Zarauzko udalak eta Zarauzko Izadi Taldeak lortutako akordioaren bidez, alderdi baliotsu hau babestu eta neurri batean berreskuratu egingo da, eseri eta lasai hitz egitea interes desberdinen arteko akordioa lortzeko modurik egokiena dela berriro ere frogatu delarik.

Urola



Oriako padura. Portuetxeko padura (Aia), Gipuzkoan dagoen ederrenetakoa da.

Zarauzko padura. Inurritza erreka padura txiki bat kontserbatu du.



Aizkorriko mendikatean jaio eta 55 kilometro igaro ondoren, Urola ibaia Zumaian itsasoratzen da, Euskal Herriko itsasadar politenetakoa sortuz. Itsasadar honetan, zabalera handiko padura-alderdi pare bat mantendu da: Bedua eta Xantixo, bietan ekosistema honetako landaredi halofitoaren ordezkari garrantzitsuak ezezik, migrazio-garaian bereziki, hainbat eta hainbat hegazti-espezie desberdin ikustea normala delarik. Adibide modura, Beduan, Gipuzkoako lertxun hauskararen (*Ardea cinerea*) populazio negutiar handiena aurki

dezakegula aipa daiteke, padura hauen limoetan batzuetan ikus daitezkeen limikoloen hegazti-espezieen kontzentrazioak handiak ahaztu gabe.

Hau guztiaz gain, tertziarioko erlikiazat onartu eta Zumaiatik mendebalderantz Euskal Herriko kostaldearen baso klimazikoa den artadiak Beduako padura osoa inguratzen du, alderdi hau Gipuzkoako bitxi ekologiko nagusi bihurtuz.

Zoritxarrez, azken urte hauetan Euskal Herriko kostaldea soil-tzen ari den kirol-kaien sukarrak, bere begiak itsasadar honetara bihurtu ditu; Xantixoko padura-



M. Estonba



Zumaia. Beduako padura. Padura hau eta bere ingurua bitxi ekologikotzat onar daitezke.

Zumaia. Xantixoko padura. Padura zoragarri hau kirol-kai baten azpian gera liteke, portu-zuzendaritzan razionaltasuna nagusitzen ez bada.

M. Estonba



ra, hain zuzen. Orain arte alferrikakoa izan da Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak alderdi honen balio ekologikoak onartu eta goraipatzea, "Euskadiko natur barrendegien katalogoa" delakoan sartzea edo Lurralde Antolaketarako Zuzenbideen (LAZ-DOT) barruan Zorrotz gordetzeko alderdi izendatzea; Portu Idazkaritzak aurrera segitzen baitu bere kirol-kaiaren proiektuarekin. Sekulako galera eragingo

Zumaia. Beduako artadia. Hemen aurki dezakegu Gipuzkoako lertxun hauskararen (*Ardea cineres*) kolonia negutiarririk handiena.

lioke gure ondare ekologikoari padura eder hau kirol-kai batez estalita geratuko balitz.

Deba

Mendebalderantz, Deba dugu Gipuzkoako azken ibaia. Bere jaiotzatik, Arlaban menditik, giza eta Industri presio handiak jasaten ditu, bere urek Europako poluzio-mailarik altuenetakoa dutelarik.

Bere itsasadarraren ezaugarriak nabarmenena, inguruko mendiek sortzen duten estugunea da. Honen ondorioz, bere padura zaballegia inoiz ez dela izan beldur gabe esan daiteke.

Dena den, gaur egun, lehengo padura horrek beteko lukeen eremurik handiena, Deba herriak okupatu du. Gainerakoa, bi zati txiki ezik, nekazaritzaren erabiliak izan daitezten lehortuak izan dira.

Ekologisten ustez, alderdi txiki horiek babesteak eta ahal den neurrian berreskuratzea, Debako herriaren ondare ekologikoaren zati garrantzitsua kontserbatzea esan nahiko luke. Herriko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradun politikoek, ordea, ez dute gauza bera pentsatzen, itsasadarra antolatzeko atera berri duten proiektua aurrera aterako balitz, padura txiki hauek betirako desagertuko bailirateke.



* **Biologia.**

Deba. Debako padura argazkietan ikusten diren aztarna txiki horietara mugatuta geratu da, herriaren garapenaren ondorioz.



M. Estonba

J. Terés

